

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kanaleko zona ureztagarrian Andosilla sartzea aztertuko du

Goicoechea kontseilariak konpromiso hori hartu du udalerrri horretako Udalarekin bildu eta gero

Martes, 09 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kanaleko zona ureztagarria Erdiko zonako eskualde berrietara zabal daitekeen aztertuko du, eta, horretarako, bideragarritasun teknikoa, ingurumen-arlokoa eta ekonomikoa baloratuko ditu.

Horrela jakinarazi du gaur goizean Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuko kontseilariak, Lourdes Goicoecheak, Andosillako

Udaleko ordezkariarekin, Manuel Teres alkatea buru zutela, bildu eta gero. Lan-saioan, Landa Garapeneko zuzendari nagusia den Jesús María Echeverriak ere parte hartu du. Hitzordua Andosillako udalerrriak eskatu zuen, ureztatze-soroak eta lehorreko lurak Nafarroako Kanaleko ureztatze-zonan sartzea eskatze aldera.

Andosillak, batetik, ureztatze tradizionalako zona bat du, Ebro ibaitik hartutako urarekin erruz ureztatzen duena, eta, bestetik, ureztatze altxatuko zona, neguko ureztatzeak bakarrik egiteko aukera ematen duena. Itoitz-Nafarroako Kanalarekin lotuz gero, egungo ureztatze-sistema hobetuko litzateke, kostu energetikoak murriztearekin eta ur-emia urte osoan izatearekin batera.

Halaber, topaketan, Andosillako Udaleko ordezkariak Goicoechea kontseilariari jakinarazi diote udalerrian industria-zoru berriaren premia dagoela eta inguruko hornidura elektrikoa hobetu beharra dagoela.

Nafarroako Kanaleko Ureztatze Zonako I. Fasea

Nafarroako Kanaleko Zona Ureztagarriko I. Fase osoa 2011ko martxoan inauguratu zen. Une honetan, 25 herritako soroak ureztatzen ditu; hau da, 22.300 hektareatik gora. 14.000 hektarea inguru (ia %60) dagoeneko ureztatzen ari dira eta 35 labore ezberdin eta uzta bikoitzak lortzen ditu kasuen %17an.



Goicoechea kontseilaria Andosillako alkatea den Manuel Teresekin (esk.) eta Jesús María Echeverriarekin.

Lehen fase horrekin, ustiapenean jarri dira Kanaleko 98 kilometro eta Itoizko urtegiko presaren behealdeko zentral hidroelektrikoa.

Nafarroako Kanala 180 kilometroko proiektua da, bi fasekoa, eta, amaitzen denean, guztira 53.125 hektarea ureztatzeaz gain, Iruñeko eskualdeko industriak eta etxebizitzak hornitzeko balioko du, kontuan izanik Nafarroako biztanleriaren %70 eskualde horretan kokatzen dela.

Lehen faseak 120 milioi eurotik gorako produkzio gordina ekarriko du, eta 2.200 lanpostu sortuko dira, zuzenekoak eta zeharkakoak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren kalkuluen arabera.